

**2009ko ABENDUAREN 3an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko abenduaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Karlos Irazu Muñoa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen du: Iñigo Aginalde Lertxundi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
- 2009ko azaroaren 5ean egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. J.T.O. jaunak Larrola nekazaritza ustiategiaren inguruan egindako obren legeztatze eskaera, hala bada.**
- 4. Larraulgo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena, "Haurrentzako Parkea. (Exp. Zbk: L25.3/10)" Inbertsio plana finantzatzeko eta gauzatzeko eta Inbertsio Planaren onespena, hala bada.**
- 5. Larraulgo Herria antolatzeke Plan Orokorra idazteko kontratazioaren esleipena, hala bada.**
- 6. Fakturak eta ordainketak.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2009 urteko azaroaren 5eko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

57/2009 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 10ekoa, Zabaleta eta frontoiaren artean dauden etxebizitzetako telebista antena, gas depositua kokatutako itxituraren kanpoan dagoen frontoiko paretan edo teilatuan jartzeko baimen berezia ematea, ebazten duena.

58/2009 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 10ekoa, Elizegi etxeko zabor zerbitzuaren tarifa, iharduera ekonomikoa duten enpresena ordez etxeetako tarifara aldatzearen eskaera onartzea, ebazten duena.

59/2009 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 20koa, Joseba Jauregi Sarasola jaunak Antzola baserriko Karobi-alde lur sailetan pinudia garbi mantentzeko dabilten astoentzat neguan janaria gordetzeko estalpe bat egiteko obra baimena ematea ebazten duena.

60/2009 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 27koa, Larraulgo Museo Etnografikoaren kudeketa DINA 7 Elkarteari esleitzea , ebazten duena.

61/2009 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 1ekoa, Larraulgo Udaleko Ekipo informatikoen mantenu lanak ZITU INFORMATIKA enpresari esleitzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

J.T.O. JAUNAK LARROLA NEKAZARITZA USTIATEGIAREN INGURUAN EGINDAKO OBREN LEGEZTATZE ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik J.T.O. jaunak , 2009ko maiatzaren 26an Larraulgo Udaletxean bere lursailean arto gozoa eta arto berdea ensilatzeko zabalgunek bat egiteko baimena eskatu zuela, egin beharreko lanen azalpena, aurrekontua eta bi plano aurkeztu zituelarik.

Eskatzen ziren lanak hauek ziren:

500m2 hormigoizko zola

500m2 zabor-legarrezko zola
5.0001-ko hobia

Ikusirik J.T.O. jaunak ez dituela bete emandako obra baimenean jarri zitzaizkion baldintzak, horregatik eta tartean J.T.O jaunak egin dituen obrak direla eta kexa bat aurkeztu da, 2009ko azaroaren 5ean egindako Udalbatzarrean J.T.O jaunari eskatu zitzaion Udal Aholkulari Juridikoak urriaren 13an eginiko txostenean jartzen zuena betetzea.

Ikusirik, J.T.O. jaunak aurkezturiko eskaera, non egindako gehiegizko obraren legeztatze baimena eskatzen duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.T.O. jaunak Larrola ustiategiaren zabalgunean bota duen hormioizko zola berriak, hau da, 1426 m2ko azalerakoari, legeztatze baimena ematea.

BIGARRENA: J.T.O. jaunari jakinarazi egindako hobia, inguruko etxeetatik gutxienez 50 metrotara kokatu beharko duela, beraz lekuz aldatu beharko duela. Horretarako 9 hilabeteko epea izango du, jakinarazpen hau jasotzen duen momentutik hasita.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, "HAURRENTZAKO PARKEA"(Exp.zbk: L25.3/10), INBERTSIO PLANA FINANTZATZEKO ETA GAUZATZEKO ETA INBERTSIO PLANAREN ONESPENA, HALA BADA.

2008ko azaroaren 25eko 74/2008 Foru Dekretuaren bidez, *Landagipuzkoa 32* programaren barruan dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioanizdunetarako inbertsioak aukeratu eta gauzatzeko prozedura arautu zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 2009ko apirilaren 7ko Erabakiaren bidez, behin betiko onartu ziren, batetik, udaletako inbertsioen planetan sartzeko hautatuak izan ziren inbertsioak eta, bestetik, inbertsio horien kontzeptuan udalerrri onuradun bakoitzari zegozkion diru zenbatekoak. Erabaki hori, 2008ko azaroaren 25eko 74/2008 Foru Dekretuaren bidez egindako deialdiaren babesean hartu

zen, dekretu horrek arautzen baitu *Landagipuzkoa 32* programaren barruan dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioanizdunetarako inbertsioak aukeratu eta gauzatzeko prozedura.

Erabaki horren bitartez, halaber, onartutako jardueren arabera udal onuradunei zegozkien inbertsio planak prestatu eta plan horietako inbertsioak burura eramane zitzan agindu zitzaion Etorlur Gipuzkoako Lurra SAU sozietateari.

Hautatutako inbertsioen artean honako hau zegoen: inbertsioa: **HAURRENTZAKO PARKEA (Exp. Zbk.: L25.3/10)**; Udala: **LARRAUL**; inbertsioen kostu balioetsia: **58.324,24 euro**.

Agindutakoa betez, Etorlur Gipuzkoako Lurra SAU sozietateak, Larraulgo Udalarekin elkarlanean, jarduketari dagokion udal inbertsio plana prestatu du.

Planaren dokumentuan, batetik, aipatutako foru dekretuaren babesean Larraulgo udalerriak egingo dituen inbertsioak agertzen dira eta, bestetik, inbertsio horien finantzazioa erabakitzen da, bai Foru Aldundiak bai udal honek hartzen dituzten konpromisoez osatutako finantza planaren bitartez. Dokumentu hori, bada, udal honi igorri zaio, erakunde honek bere onspena eman diezaion, 74/2008 Foru Dekretuko 4c) 3 artikuluan xedatutakoa betez.

Aurrekoarekin batera, Haurrentzako Parkea (Exp. Zbk.: L25.3/10) finantzatu eta burura eramateko udal honen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren zirriborroa igorri dute, erakunde honek bere onspena eman diezaion.

Horregatik guztiagatik, Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

- 1.- Onartzea exekuzio-proiektu hau: obra: Haurrentzako Parkea (Exp. Zbk.: L25.3/10); aurrekontu mota: inbertsioak ; aurrekontuaren zenbatekoa: 8.324,24,-euro.
- 2.- Onartzea inbertsio plan hau: Haurrentzako Parkea (Exp. Zbk.: L25.3/10). Dagokion dokumentua, erabaki honen hurrengo puntuan onarpenera jartzen den lankidetzaz hitzarmenari erantsiko zaio (I. eranskina).
- 3.- Onartzea Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Larraulgo Haurrentzako parkearen proiektua finantzatu eta burura eramateko.
- 4.- Baimentzea eta xedatzea 8.324,24,-euroko gastua, aurrekontuko 601.510.00.01 kontu sailaren kargura, hori baita onartu den inbertsio planeko inbertsioak gauzatzeko

Udalari dagokion finantzazioaren zatia. Diru zenbateko hori Etorlur Gipuzkoako Lurra SAU sozietateari ordainduko zaio, lankidetzaz hitzarmena sinatzen denean edo, gehienez, 15 egunen buruan.

5.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO HERRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO KONTRATAZIOAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2009ko uztailaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Larraulgo herria antolatzeke Plan Orokorra idazteke kontratazioaren lizitazioari hasiera ematea eta baldintza tekniko eta administratiboak onestea erabaki zela.

Ikusirik aipaturiko lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, 2009ko abuztuaren 7an (GAO zenbakia 147), 26 egun naturalez jendaurrean egon zelarik, interesatuek euren proposamenak aurkezteko.

Ikusirik aipaturiko epean, 4 taldeen proposamenak aurkeztu zirela Larraulgo herria antolatzeke Plan Orokorra idazteke, ondorengoak izanik:

-INJELAN

-KUDEATUZ

-J.ARRIZABALAGA, P.ASSAS eta J. ZUBIRIA

-M.A. IRAZABALBEITIA, P. IZASKUN eta E.ERKIZIA

Ikusirik lau proposamenak aztertu ondoren, 2009ko azaroaren 30ean Larraulgo Herria antolatzeke Plan Orokorra idazteke lizitazioaren kontratazio mahaiak Udalbatzarrari eginiko proposamena, non M.A. Irazabalbeitia, P. Izaskun eta E.Erkizia taldeari Larraulgo Plan Orokorra idazteke kontratua esleitzeko proposamena egiten dion.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.A. Irazabalbeitia, P. Izaskun eta E.Erkizia taldeari Larraulgo herria antolatzeke Plan Orokorra Idazteke kontratua esleitzea, lanaren zenbatekoa 94.000,00 euro direlarik eta aipaturiko lana 34asteetan egingo dutelarik, proposamen honek lortu duelako puntuaketerik altuena.

BIGARRENA: Erabaki honen berri INJELAN, KUDEATUZ, J.ARRIZABALAGA, P.ASSAS eta J. ZUBIRIA eta M.A. IRAZABALBEITIA, P. IZASKUN eta E.ERKIZIA taldeei ematea, eta Larraulgo Web orriko kontratatzailearen profilean jartzea.

SEIGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

EBA ERKIZIA BRION	1.023,57
BABESA SUZAI	88,16
IBERDROLA	112,97
IBERDROLA	112,33
IBERDROLA	73,31
EUSKALTEL	197,07
SUNION	290,00
GRAFICAS SORTU	198,88
IZFE	522,00
MANPEL	1.725,14
TELEFONICA	91,23
TELEFONICA	20,12
TELEFONICA	17,06
TELEFONICA	67,53
IZFE	159,96
IZFE	263,44
KEY-LAN	75,86
ZELAI	59,65
IBERDROLA	297,17
IBERDROLA	23,48
IBERDROLA	172,62
IBERDROLA	17,66
IBERDROLA	61,70
IBERDROLA	126,81
REPSOLGAS	57,41

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **5.855,13** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

7.1.I.A.U JAUNAK SOROZELAI SAILEAN EGINDAKO OBREN LEGEZTATZE BAIMENA

Ikusirik 2009ko urriaren 1ean egindako Udaltzarak I.A.U. jaunari Larraulgo Sorozelai lursailean barne bide baten egokitzapena eta kanpo itxitura egiteko obra baimena eman ziola, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen ziren baldintzak betetzen bazituen.

Ikusirik I.A.U. jaunak Sorozelai lursailean Udalak emandakoa baino esplanada handiagoa atera zaiola, horretarako dagokion legeztapen obra baimena eskatzen duelarik eta bide batez aipaturiko esplanada hormigonatzeko obra baimena.

Gaia azterturik, Udaltzara honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHNA: I.A.U jaunari, Sorozelai lursailean egindako gehiegizko esplanadaren legeztatze baimena onestea.

BIGARRENGOA.- I.A.U jaunari, Sorozelai lursailean egingako esplanada hormigonatzeko obra baimena ematea.

HIRUGARRENGOA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

7.2.ASTEASUKO ERREGE KABALGATAN PARTE HARTZEARI UZTEKO ERABAKIA BERTAN BEHERA UZTEA

Ikusirik Udaltzarak 2009ko azaroaren 5ean hartutako erabakia, non erabaki zen Asteasuko Errege kabalgatan gehiago ez parte hartzea.

Ikusirik aipaturiko erabakia herrian jakinarazi dela eta dagoeneko gabonak gainean ditugunez, Asteasuko eskolara jaisten diren umeen gurasoak Larraulgo Udalean euren kexa tartekatu dutela denbora gutxi dutelako beste neurri batzuk hartzeko.

Guzti hau kontutan izanik, Udaltzara honek, Alkate-Lehendakariaren kontrako bozkarekin, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2009 urtean Asteasuko Errege kabalgatak suposatuko dituen gastuak finantziatzea.

BIGARRENA: Datozen urteetan Larraulgo Udalak ez dituela finantziatuko Asteasuko Errege kabalgatak izango dituen gastuak.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri Larraulgo herritarrei ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ondorengo mozioa aurkezten da:

Villabonako eta Zizurkilgo euskal preso politikoen senide eta lagunek antolatuta manifestazio isila egingo da abenduaren 31n Villabona eta Zizurkilgo kaleetan barrena. Manifestazio horren harira, ondoko adierazpena bere egiteko, eta, aipatu manifestazioari bando bidez nahiz komunikabideetara prentsa oharra bidaliz bere atxikimendua adierazteko eskatzen diogu Larraulgo Udalari.

EGIAZTATZEN DUGU

-Espainia eta Frantziak espetxe politika errepresiboa bere horretan mantentzen dute. Sakabanaketa politika aplikatzen jarraitzen dute.

-Espainia eta Frantziak espetxe politika bere interes politikoetara erabat lerrokatua dute, esan nahi baitugu, Estatu demokratiko eta zuzenbidezko bati legokiokoen irizpide demokratikoetatik urrun, unean uneko interes politiko huts eta hitsetara lerrokatua, epe motzeko behar eta oportunitate politikoei lotua.

-Espetxe politika, presoak zigortzeko diseinatua izateaz gain, helburu politiko zabalagoetan murgiltzen da. Presoak zapalduz, aukera politiko batzuk agortu eta ezereztatzea baitute asmoa.

-Ondorioz, euskal presoan oinarritzko eskubideak urratuak izan dira hamarkada luzeotan eta urratzen dituzte gaur egun ere. Garai bakoitzean bitarteko ezberdinak baliatu dituzte euren helburu politikoak erdiesteko xedez.

-Euskal presoan izaera politikoa ukatu asmo dute, aldiz, tratamendu politiko berezituak aplikatzen diete, izaera saihestezin hori baduten adierazgarri. Haien estatus politikoa ezabatu gogo dute, gatazka politikoa ikusezin bilakatzeko.

-Sakabanaketa politika presoarentzat zigor bikoitza da. Presoarentzat ezezik senide ta lagunentzat ere zigor gehigarria da. Sakabanaketa urruntasun geografikoaz haratago eskubide urraketarako inpunitate markoa da, espetxe politikaren oinarritzko markoa: bere baitan garatu dituzte politika espezifikokoak, damuketa politikatik hasi eta biziarteko zigorrera doan ibilbidean.

-Sakabanaketa, euskal preso politikoen oinarritzko eskubideen ukazio eta urratze iraunkorra da. Traslado arbitrarioak, miaketak eta erasoak babesten ditu. Xahutze ekonomikoa izugarria. Isolamendua eta bakartasuna preso txikitu eta deserrotzeko xedez aplikatzen da.

-Azken hamarkada honetan, biziarteko zigorra aplikatzeko urrats berriak eman dituzte. Frantzian bezala Espainian aplikatzen da, azken honetan legez aitortzen ez bada ere, lege moldaketek horrela izan dadin permititzen dute.

-Heriotza zigorra aplikatzen da, gaixo larriak preso atxikiz eta kaleratzea zangotrabatuz. Gaixo larriak heriotzaren korridorean dira. Kaleratu dituzten preso gaixo larriak, xantaiapean irten dira, espetxe arinduaren formula baliatuz egin dute eta bizi-baldintza kaskarretan dira ezarritako neurri zorrotzengatik.

-Azken garaiotan espetxe politikari, espetxetik kanpoko jazarpena erantsi diote: mobilizazioak modu esanguratsuan zapuztuz, presoan irudien ehiza antolatuz eta senideen miaketak aginduz.

ALDARRIKATZEN DUGU

-Espainiako eta Frantziako Gobernuek espetxe politika errotik aldatu behar dute.

-Sakabanaketak gaur eta orain amaitu behar du, euskal presoak dagozkien eskubideen jabe Euskal Herrira orain ekarri behar dituzte. Euskal Preso politikoen oinarritzko eskubideak errespetatu behar dituzte, izaera politikoa errespetatu.

-Isolaturik eta bakartasunean diren presoak, beste preso kideekin ezarriak izan behar dute.

-Biziarteko zigorra indargabetu behar dute. 40 urte arteko zigorrak, Auzitegi Gorenaren doktrinaren aplikazioa eta baldintzapeko askatasuna eragozteko neurriak bertan behera utzi behar dituzte. Ondorioz:

-Kondena Beteta duten presoak orain kaleratzea (38 preso).

-Kondizionaleko epeak bete dituztenak kaleratzea (ehundik gora)

-gaixo larri diren presoak atzerapenik gabe kaleratzea (5 preso):

- Jon Agirre Agiriano (Langraitz)
- Jose Migel Etxeandia (Alcala Meco)
- Jose Ramon Foruria (Dueñas)
- Gotzone Lopez de Luzuruaga (Jaen)
- Juan Jose Rego Vidal (Dueñas)
- Espetxe arindua aplikatu dieten presoek (6 preso) ezarritako baldintzak indargabetzea, duintasunez bizi eta osasun tratamendu egokia jaso dezaten.
- Euskal gizarteak hitza eman du. Errespetatu egin behar dute.

Horregatik guztiagatik, abenduaren 31an Villabonatik Zizurkilera egingo den manifestazio isilari gure atxikimendua adierazten diogu, eta, herritarrei, bertan parte hartzeko deia luzatzen diegu.

Modu berean bat egiten dugu Etxerat elkarteak urtarrilaren 2rako Bilbon deitu duen manifestazio nazionalarekin.”

Ondoren mozioa bozkatu egiten da, ondorengoa delarik bozketaren emaitza:

- Aldeko botuak: 3 (Mujika, Barandiaran eta Irazu Alkate eta zinegotziak)
- Kontrako botuak: 0
- Abstentzioak: 1 (Mendiola zinegotzia)

Beraz bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, Villabonako eta Zizurkilgo euskal preso politikoen senide eta lagunek antolatuta abenduaren 31an Villabona eta Zizurkilgo kaleetan barrena egingo duten manifestazio isilari atxikimentua ematea, auzkezturiko mozioa onartuaz.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA